

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Mama Tunza, 2012ko Elkartasunaren “Nafarroa” Nazioarteko Saria

Adin txikikoen zentro bat zuzentzen du Nairobiko (Kenya) auzo txiroenean, eta bertan 200 haur umezurtzi arreata ematen die

Martes, 03 de julio de 2012

Mama Tunza-ri (zaintzen zaituen ama, swahili hizkuntzan) 2012ko Elkartasunaren "Nafarroa" Nazioarteko Saria eman zaio gaur Mama Tunza Children's Centre proiektuagatik; adin txikikoen zentro hori Kibelako kaleetan eraiki zen, Nairobiko (Kenya) auzo txiroenean, eta bertan 200 haur umezurtzi arreata ematen zaie gaur egun.



Pejenaute kontseilaria eta Javier Cortajarena, erdian, epaimahaikideekin.

25.000 euroko saria Nafarroako Gobernuak eta Euskadiko Kutzak ematen du, eta garapenerako nazioarteko kooperazioaren eremuan nabarmendu diren erakunde edo pertsonak saritzen ditu. Aurtengo edizioan 21 hautagaitza aurkeztu dira.

Epaia txirrindulari ohi eta Frantziako Tourra bost aldiz irabazi duen Miguel Indurain epaimahaiburuak jakinarazi du. Ekitaldian ere esku hartu dute Gizarte Politiken kontseilari Jesús Pejenaute-k eta Nafarroako Euskadiko Kutzako lurralde-zuzendari Javier Cortajarena-k. Erakunde hori egin da kargu edizio honetan 40.000 euroko sariaz.

Epaimahaiak baloratu du "emakume horren irmotasuna, altruismoa, lan egiteko gaitasuna eta balioak herritarrak eta turistak mugitzeko zentroak aurrera egin ahal dezan, eta hartutako adin txikikoei txirotasunetik irteteko gogoia transmititzeko duen gaitasuna ere" Indurainek jakinarazi duenez.

Mama Tunza Children's Centre

Ekimena 1997an sortu zen, Mama Tunza-k, lan egin ondoren etxera itzultzen ari zela, haurtxo bat bakarrik lagata edukiontzi batean aurkitu zuenean. Etxera eraman zuen, sendatu eta polizia-etxe batean utzi nahi izan zuen, baina han ez ziren haurtxoaren erantzule egin. Handik egun gutxira, gizon zahar bat joan zitzaion aurkitu zuen beste haurtxo batekin eta, geroago, emakume batek etxean erditu eta erditu berri zuen haurtxo hori han bertan bakarrik utzi zuen, GIB birusarekin kutsatuta zegoena.



Tunza Children's Centre-ko adin txikikoen zentroko haur eta zaintzaileak.

Horren guztiaren ondorioz, emakume horrek, analfabetoak, adiskide, senide eta herritar batzuen laguntzarekin barrakoi batzuk egiteko erabakia hartu zuen, eta haietatik 350 haur umezurtz baino gehiago pasa dira hiriburuko kanpoaldera.

Txikienak helduek zaintzen dituzte libre duten denboran eta nagusiagoak Mama Tunza-k berak zaintzen ditu. Promundi 3, Ecowildlife Travel eta Kobo Safaris GGKEak aurkeztutako hautagaitzak jasotzen duenez, Mama Tunza-k "persona zintzoak" izan daitezten nahi du eta, horregatik, eskolaren doako egoera hori amaitzen zaienean, Nairobiko turismoko enpresetara jotzen du haiek ardura daitezten matrikula bakoitzak balio duen 300 dolarrek ordaintzeaz.

Zentroak ez du argindarrrik eta edateko urik oraindik. Sariaren dirua bertako instalazioak egokitzeko inbertituko da haur umezurtz gehiago hartzeko, haien ikasketak ordaintzeko eta haragi nahiz arrain pixka bat erosteko haurrek dieta askotarikoa izan dezaten, beraien eguneroko dieta osatzen duten arroz eta barazkien zopatik haratago.

Elkartasunaren Nafarroa Saria

Elkartasunaren "Nafarroa" Nazioarteko saria 2001ean jaio zen Euskadiko Kutzaren laguntzarekin, eta garapenerako nazioarteko kooperazioaren edozein eremutan beren ibilbideagatik nabarmendu diren gobernuz kanpoko erakundeek edo pertsona fisikoek egindako lana aitortzea du xede eta, bereziki, Milurteko Garapen Helburuak betearazten laguntzen.

Sariak bilatzen du, gizartea kontzientziaztea eta sentsibilizatzea txiroak diren herrialde eta herrietako sektore sozial baxuenen alde boluntarioek egiten duen lan garrantzitsuaren inguruan

Aurreko edizioetan sari hori bera honako hauek jaso zuten: Manuel Elkin Patarroyo (2011), Creative Handicrafts GKEak(2010), Aguarico-ko Bikarlotza Apostolikoak (2009), Mama Samateh Saidy eta Wassu Gambia Kafo GKEak(2008), San Joan Jainkoarenaren anaiak (2007), Fedea eta Poza mugimenduak (2006), UNASO erakundeak (2005), Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak (2004), Karitatearen Ahizpa Misiolariak (2003) eta Muhammad Yunnus-ek (2002)

Miguel Indurain da epaimahaiburua eta epaimahaia honako hauek osatzen dute: Gizarte Politiken kontseilari Jesús Pejenaute-k; Nafarroako Euskadiko Kutzako lurralde-zuzendari Javier Cortajarena-k, Nafarroako Medicus Mundiko sortzaile Miguel Ángel Argal-ek; Nazio Batuen Milurteko Kanpainako Hiri eta Toki Gobernuetik (Europa) harremanen arduradun Xavier Longan-ek; garapenerako hezkuntzako aditu María Luz Ortega-k; eta Nafarroako UNICEFeko koordinatzaile Maider Gabilondo-k. Idazkari Garapenerako Nazioarteko Kooperazioko Zerbitzuaren zuzendari Andrés Carbonero da

1. argazki-oina (ezkerretik eskuinera): Xavier Longan, Miguel Induráin, Jesús Pejenaute, Javier

Cortajarena, María Luz Ortega eta Miguel Ángel Argal.